

## IBILIAZ EZAGUTU: HAIZEAK NAROAN LEKURA




Oraingoan hurbileko ingurutik apur bat urrundurik gauzatuko ditugu ibilaldiak. Urruntze horretarako, Amorebieta-Etxanoren ezkeraldera eta eskuinaldera begira jarri gara, eta mendebaldetik ekialdera eragingo gaitu udazkeneko haize epelak. Ibilbide guztiak izango dira 12-15 kilometro ingurukoak.

### **Urriaren 20an, Enkarterriak 1 (12 km)**

**Zailtasuna: Erraza**

Ibilbide honetaz baliaturik, Enkarterrietako parajeetako bat ezagutuko dugu. Karrantzaren edertasunak liluraturik utziko gaitu, eta Armañonen inguru ederra bezain latza ezagutuko dugu.




### **Urriaren 27an, Enkarterriak 2 (14,00 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**

Ibilbide honek ez gaitu batere epel utziko. Txunditzeko dugun gaitasunak goia joko du oraingoan, berde biziko tontor leunak eta harrizko mendi puntak tartekatu egingo baitira gure begien aurrean.

Gráfico




## Azaroaren 10ean, Aulestia – Markina (13,00 km)

Zailtasuna: Ertaina

Lea-Artibaiko haran sakon eta estuetan barrena ibiliko gara irtenaldi honetan. Mendiz inguratutako zulotik abiatuta, eguzki izpien epeltasunarekin bat egiteko asmoaz goranzko bidea hartuko dugu, gailurreko ikuspegiez gozatzeko..

Gráfico




## Azaroaren 17an: Araotz (Oñati) (12,00 km)

Zailtasuna: Erraza

Bizkaia lurralde historikotik gehiegi urrutiratu gabe, neba-arreba ditugun gipuzkoarren lurraldea bisitatuko dugu. Zeruko laino artean galtzen diren tontorrak alde batera utziz, apaltasunez bezain besteko edertasunez jantzitako mendi, paseo eta ibilbideez gozatuko gara.

Gráfico



Informazioa eta testuak: Jokin Berrio

- Egokiagoa edo ederragoa izate aldera, baliteke antolatzaileek etaparen baten ibilbidea aldatzea. *La organización puede modificar el itinerario de las etapas, siempre al objeto de mejorarlas.*

**Irteera ordua, goizeko 8:00**  
**Irteera tokia: Nafarroa parkina**  
**Prezioa: 8 € irteera bakoitza**